

Izenari izana zor dio Goizuetako Umore Ona abesbatzak; giro onean kantua gustuko duten herritarrak biltzen baitira bertan. Hamar urte bete dituzte aurten eta urteurre-

neko ekitaldiak borobiltzeko, gabonetako kontzertu berezia eskainiko dute abenduaren 18an. Beste hainbeste urtez Goizueta eta inguruko herriak kantuz alaitzen segitzeko

asmoa dute baina horretarako kimu berriak behar dituztela azpimarratu dute, «baldintza bakarra kantatzea gustuko izatea da. Ziur gaude sartzen dena ez dela urrikituko».

Juan Antonio LEKUONA | Goizuetako Umore Ona abesbatzako kidea

«Jende gazteagoa behar dugu abesbatzak aurrera jarraitzeko»

Eneritz IRAOLA | GOIZUETA

Nola sortu zen Umore Ona abesbatza?

2006ko udazkena zen. Kultur taldekoek deialdia egin zuten adieraziz kantatzea gustuko bagenu azaltzeko Udaltzeko ganbarara. 54 bat lagun bildu ginen, jakin gabecerproposatuko ziguten. Orduan kantujirak indarra hartzen hasiak ziren eta horrelako zerbait izango zela uste nuen. Abesbatza bat antolatzeko asmoa zegoe la esan ziguten eta 49 bat animatu ginen. Urri- an hasi ginen entseguekin eta gabonetan eman genuen lehenbiziko kontzertua Hernaniko Ozenki abesbatzarekin.

Aurretik zer harreman zenuten musikarekin?

Denak ginen musika za- leak, gutxi batzuk sol- feoa ikasitakoak. Ordu- ra arte ez genuen elka- rrekin musika harrema- nik izan. Ahots teknika lantzeko, adibidez, Ele- na moldabiarra etortzen zen entsegua egitera eta baita Jon Irazoki ere, Doneztebeko Mendi abesbatzako zuzenda- ria. Pixkanaka ikasten ari gara eta gaur egun, mo- ta diferentetako musika lantzen dugu. Afrikarrak, ingelesak, sakroak, espi- ritualak abesten ditugu baina euskaldunek dute lehentasuna.

Zein izan da urte haue- tako ibilbidea?

Partaide kopurua behe-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gaur egun 36 taldekide ditu abesbatzak eta Eneko Amundarain da zuzendaria.

ra dijoa, 49 bat hasi gi- nen eta gaur egun 32 gaude. Aspaldiko partez aurten soprano berri bat sartu zaigu.

Zuzendari aldaketa ere izan duzue...

Igaratza Apezetxea he- rritarrarekin 2010 arte egonginen. Ondoren Nu- ria Colomer etorri zen eta eztarrian nodulo batzuk zituenez utzi egin behar izan zuen. 2014ko iraile- tik Eneko Amundarain da zuzendaria.

Non aritu zarete kan- tuan?

Hernanikoekin batera eta Imanolen zuzendaritza- pean bi urtetan abestu genuen Donostiako Kur- saalean eta Santandere- ren ere izan gara. Elkar- trukeak ere egin ditugu Donostia, Bilbo, Iruñea, Hernani, Andoain, Do-

ABENDUAREN 18AN

«Hernaniko Ozenki eta Getariko bandare- kin batera Goizuetan gabonetako kontzer- tua eskainiko dugu. Guretzako ekitaldi berezia izango da hau eta mimoz ari gara prestatzen».

ATEAK ZABALIK

«Herriko edozein ekitalditan parte hartzeko prest egoten gara eta jendeak onartzen du. Horregatik, kantatzea gustuko duenarentzat ateak zabalik dauzkagu. Ziur gaude sartzen dena ez dela urrikituko».

neztebe eta Igeldoko abesbatzekin.

Herriko ekitalditan ere parte hartzen duzue.

Gabonetan, Santa Age- dan eta hiletetan kanta- tzen dugu. Goizueta eta Hernaniko festetan, han- go abesbatzakoekin ba- tera aurorak kantatzen ditugu eta urtero, Nafa- rroako auroroen bilkura- ra joaten gara. Aurten gainera, urteurrena ospa- tzen genuelako Udalak herriko festetako itxafe- roa botatzeko aukera ere eman zigun. Ohore bat izan zen guretzako.

X. Urteurrena abendu- an borobilduko duzue.

Abenduaren 17an Hernanin, Ozenki abesba- tza eta Hernaniko ban- darekin batera kontzer- tu bat emango dugu eta abenduaren 18an Her-

naniko Ozenki eta Geta- riko bandarekin gabone- tako kontzertua eskaini- ko dugu herrian. Gure- tzako ekitaldi berexia izango da hau eta mi- moz ari gara prestatzen. **Eta etorkizuna?**

Ilusioz beteta jarraitzen dugu baina adinean au- rrera goaz eta ez du bar- katzen. Jende gaztea- goa behar dugu abes- batzak aurrera jarraitze- ko. Herriko edozein eki- talditan parte hartzeko prest egoten gara eta jen- deak onartzen du. Horre- gatik, kantatzea gustu- ko duenarentzat ateak zabalik dauzkagu. Etor- kizunean ez gara gaiz- ki ibiliko gizon emaku- me batzuk sartzen ba- dira, bestela pixkana- pixkana bukatzen joan- go da.